

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### Jendaurrean jartzea hilerriko tasaren 2019ko errolda

Egin delarik Okondoko udalerriko hilerriko tasaren 2019ko errolda, Alkatetzaren 2019ko abuztuaren 26ko dekretu baten bidez onartu da.

Jendaurrean jartzen da 15 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

6/2005 Foru Arau Orokorrak, zergenak, 98. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin erroldan alta ematearen likidazioa jakinarazita, hortik aurrerako likidazioak guztientzat batera egindako ohartarazpen ediktuen bidez jakinarazi ahal izango dira.

Erroldak eta likidazioak onartzeko egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkate lehendakariari, hilabeteko epean, jendaurrean jartzen denetik aurrera. Erreklamaziorik ez balego, behin betiko onartuzat joko da, eta kobratu egingo da, era honetan:

A. Borondatezko epea: 2019ko urriaren 1etik azaroaren 30era.

B. Ordainarazpen epea: 2019ko azaroaren 30etik aurrera egiten diren ordainketek legezko errekarguak, berandutze interesak eta kostuak sortuko dituzte.

Ordaintzeko lekua eta modua

A. Banketxeetan helbideratutako ordainketetan zergapekoek ez dute inongo izapiderik egin behar, eta bankuak zordunketa 2019ko azaroaren 5ean egingo die.

B. Ordainketa helbideratuta ez dutenek udal bulegoetan jaso behar dute ordainagiria, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, eta Nafarroako Rural Kutxan egin diru sarrera.

Okondo, 2019ko abuztuaren 26a

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO*